

IRAKASLE LAGUNTZAILE DOKTOREA HAUTATZEKO BAREMO OROKORRA /
BAREMO GENERAL APLICABLE PARA LA SELECCIÓN DE PROFESORADO
AYUDANTE DOCTOR

Irakasle laguntzaile doktoreak hautatzeko prozesuaren arautegiaren I. Eranskinean dago jasota (2024ko ekainaren 14ko EHAA). Está recogido en el Anexo I del Reglamento del proceso de selección del Profesorado Ayudante Doctor (BO.P.V. de 14 de junio de 2024).

Irakasle laguntzaile doktoreen kategorian gehienez ere lor daitekeen puntuazioa, lehenengo xedapen iragankorra aplikatu aurretik: 100 puntu kontratu ez elebidunetan eta 91,2 puntu kontratu elebidunetan, baloratu beharreko atalak honako hauek izanik: La puntuación máxima alcanzable en la categoría de Profesorado Ayudante Doctor, antes de aplicar la Disposición Transitoria primera, será de 100 puntos en contratos no bilingües y 91,2 puntos en contratos bilingües, siendo los apartados a valorar los siguientes:

Atalak / Apartados	Puntuazio maximoa / Puntuación máxima	BATZORDEAK EMANDAKO PUNTUAZIOA / PUNTUACION COMISION
Lan esperientzia eta bekak ¹ / Experiencia laboral y becas ¹	10	10
Ikerketa merezimenduak / Méritos de investigación	20	20
Irakaskuntza eta gestioko merezimenduak / Méritos de Docencia y Gestión	20	20
Merezimendu akademikoak / Méritos académicos	15	15
Euskara ² / Euskara ²	2,2/11 ²	
Irakaskuntza programa eta ikerketa proiektua / Programa Docente y Proyecto Investigador	24	24
Guztira / Total	91,2/100	

Gutxieneko nota / Nota mínima	Elebakarra / Monolingue	40	
	Elebiduna / Bilingue	35	

1. oharra: doktorego aurreko eta doktorego ondoko kontratuak barne.

2. oharra: euskara nahitaezkoa den plazetan (C1 titulua edo baliokidea), 2,2 puntukoa da atal honen gehieneko balioa, eta soil-soilik dagokie euskararekin zerikusia duten «Bestelako merezimenduak, espezifikoak eta gehigarriak» ataleko puntuei.

Nota 1: Incluyendo contratos predoctorales y postdoctorales.

Nota 2: En el caso de las plazas en que sea preceptivo el conocimiento de euskera (título C1 o equivalente), el valor máximo de este apartado será de 2,2 puntos, correspondiendo únicamente a los del apartado Otros méritos, específicos y adicionales, relacionados con el euskara.

BALORAZIOARI BURUZKO OHARRAK

- a) Ezin izango da baloratu gabe utzi balorazio irizpide hauetan zehazturiko atal bat bera ere.
- b) Atal bakoitzeko puntuazioa haztatu ahal izango da, 1/0,8/0,5/0,1 koefizienteak erabilita, modu arrazoituan, kontuan harturik merezimenduak plazaren ezaugarrietara egokitzen diren. Dena dela, Batzordeak 0 puntu eman ahal izango die plazaren ezaugarriekin zerikusirik ez duten –edo zerikusirik ez dutela uste duen– merezimenduei. Koefiziente horiek aplikatzean erabiliko den prozedura argi eta garbi adieraziko da merezimenduen baremoa zehaztean.
- c) Atal bakoitza puntuatzeko, II. eranskineko baremoa erabiliko da baremo espezifiko gisa. Kontuan izanik Ikerketaren Ebaluazioaren Aurrerapenerako Koalizioaren (Coalition for Advancing Research Assessment, COARA) postulatuetan, Batzordeak aplikatu ahal izango ditu, arrazoituta, alegaturiko merezimenduen kalitatea kontuan hartzen duten irizpideak.
- d) Merezimendu bat atal batean baino gehiagotan balioetsi ahal denean, kontuan

CONSIDERACIONES RELATIVAS A LA VALORACIÓN

- a) No se dejará de valorar ningún apartado previsto en los presentes criterios de valoración.
- b) La puntuación otorgada en cada apartado podrá ser ponderada con los coeficientes 1/0,8/0,5/0,1, de forma razonada, en función de la adecuación de los méritos a las características de la plaza. Sin perjuicio de lo anterior la Comisión podrá valorar con 0 puntos los méritos que no tengan ninguna relación con las características de la plaza o que considere. El procedimiento a seguir para aplicación de los citados coeficientes se señalará explícitamente en el momento de concretar el baremo de méritos.
- c) Para puntuar cada uno de los apartados se utilizará como baremo específico el del Anexo II. Habida cuenta de los postulados de la Coalición para el avance de la evaluación de la investigación / Coalition for Advancing Research Assessment, COARA, la Comisión podrá aplicar, justificadamente, criterios que tengan en cuenta la calidad de los méritos alegados.
- d) Cuando un determinado mérito pueda ser considerado en más de un apartado, lo será

hartuko da izangaiari puntuazio handiagoa emango dion atala.

e) Ahozko azalpenean, Batzordeak baloratuko ditu, besteak beste, plazaren hizkuntza eskakizuna osatzen duten irakats hizkuntzetan diskurtsoa antolatzekeo gaitasuna eta hizkuntza horien jariora.

f) Lehiakideren batek gairiditu egiten badu atal zehatz batean atal horretarako zehazturiko gehieneko puntuazioa, gehieneko puntuazio hori emango zaio eta, ondorioz, haztatu egingo dira proportzionalki gainontzekoen puntuazioak atal horretan.

g) Merezimenduak balioetsi ondoren, gehieneko puntuazio izango da 100 puntukoa kontratu ez-elebidunetan eta 91,2 puntukoa kontratu elebidunetan.

h) Batzordeak gutxieneko nota bat ezarriko du, inoiz ez 40 puntutik gorakoa (35, plaza elebidunen kasuan), kontratuaren formalizazioari begira izangaiak proposatu ahal izateko.

i) Lehenengo xedapen iragankorrean aipaturiko egunera arte eginiko hautapen prozesuetan, xedapen horretako faktoreak aplikatuko zaizkio parte-hartzaile bakoitzaren merezimendu guztien puntuazioari, baldin eta xedapen horretako baldintzak betetzen badira deialdiaren datan.

únicamente en aquel en el que la candidata o el candidato obtenga mayor puntuación.

e) En la exposición oral, la Comisión valorará, entre otros aspectos, los relacionados con la organización del discurso y la fluidez en las diferentes lenguas de impartición que componen el perfil lingüístico de la plaza.

f) En el caso de que una o un concursante supere en un apartado concreto la puntuación máxima prevista para el mismo, tal concursante será calificado con dicha puntuación máxima, y, en consecuencia, las puntuaciones de los demás concursantes, en dicho apartado se verán proporcionalmente ponderadas.

g) La puntuación máxima establecida será, tras la evaluación de los méritos, de 100 puntos en contratos no bilingües y 91,2 puntos en contratos bilingües.

h) La Comisión establecerá una nota final mínima, que en ningún caso puede superar los 40 puntos (35 en el caso de las plazas bilingües), para que las personas candidatas puedan resultar propuestas para la formalización del contrato.

i) En los procesos selectivos que se celebren hasta la fecha recogida en la disposición transitoria primera, se aplicarán a la puntuación del total de los méritos de cada participante los factores recogidos en dicha disposición, siempre que, a la fecha de la convocatoria, se cumplen las condiciones citadas en la misma.

HAZTATZE FAKTOREAK / FACTORES DE PONDERACIÓN	BAREMOA / BAREMO
Baremoko zein ataletan aplikatuko diren / Apartados del baremo en que se van a aplicar	
Nola aplikatuko den zehatz-mehatz / Modo concreto de aplicación	
Espezifikotzat hartzen da / Se considera específico	
Lehen graduko kideztat hartzen da / Se considera afín de primer grado	
Bigarren graduko kideztat hartzen da / Se considera afín de segundo grado	

<p>Hirugarren graduako kideztat hartzen da / Se considera afín de tercer grado</p>	
--	--

BERDINKETA HAUSTEKO IRIZPIDEAK

Puntuazio bera duten lehiakideak badaude, irizpide hauen arabera ezarriko da haien arteko hurrenkera:

- 1.- Gutxienez % 33ko desgaitasuna egiaztatuta izatea.
- 2.- Genero indarkeria pairatu izana egiaztatzea.
- 3.- Kontziliazioarekin zerikusia duten eszedentziak edo lizentziak gutxienez 6 hilabetez baliatu izana.
- 4.- Saileko irakasle iraunkorren artean ordezkari txikiena duen generokoa izatea.
- 5.- Gaituta edo akreditatuta egotea indarrean dauden irakasle-ikertzaile iraunkorren figuren lehiaketetan parte hartzeko (LOSUren 68. eta 82. artikulua eta baliokideak).
- 6.- Hiru hilabetetik gorako egonaldiak egin izana UPV/EHUz bestelako unibertsitate edo ikergune entzutetsuetan, Espainiako Estatutan edo atzerrian.
- 7.- Puntuazio handiagoa ikerketako merezimenduen eta irakaskuntza eta gestioko merezimenduen atalak batuz (kontuan izan gabe atalerako ezarritako gehieneko puntuazioa).
- 8.- Puntuazio handiagoa lan esperientzia eta beken atalean (kontuan izan gabe

CRITERIOS DE DESEMPATE

En el caso de que existan personas concursantes con la misma puntuación, el orden de prelación entre las mismas se establecerá de acuerdo con los siguientes criterios:

- 1.- Tener acreditada una discapacidad de, al menos, un 33 %.
- 2.- Acreditar haber sufrido violencia de género.
- 3.- Haber disfrutado de excedencias o licencias relacionadas con la conciliación de, al menos, 6 meses.
- 4.- Pertenecer al género menos representado en el profesorado permanente del Departamento.
- 5.- Estar habilitados o acreditados para participar en los concursos de las figuras de PDI permanente vigentes (artículos 68 y 82 de la LOSU y equivalentes).
- 6.- Haber realizado estancias en universidades o centros de investigación de reconocido prestigio, españoles o extranjeros, distintos de la UPV/EHU, superiores a tres meses.
- 7.- Mayor puntuación en la suma de los apartados de méritos de investigación y méritos docentes y de gestión (sin tenerse en cuenta el máximo de puntuación establecido para el apartado).
- 8.- Mayor puntuación en el apartado de experiencia laboral y becas (sin tenerse en

atalerako ezarritako gehieneko puntuazioa).

9.– Puntuazio handiagoa merezimendu akademikoen atalean (kontuan izan gabe atalerako ezarritako gehieneko puntuazioa).

10.– Berdinketak jarraitzen badu, zozketa egingo da, berdinketa hausteko.

cuenta el máximo de puntuación establecido para el apartado).

9.– Mayor puntuación en el apartado de méritos académicos (sin tenerse en cuenta el máximo de puntuación establecido para el apartado).

10.– En el caso de que persistir el empate, se realizará un sorteo para dirimirlo.

IRAKASLE LANGUNTZAILE DOKTOREEN LEHIAKETETARAKO IRIZPIDE ZEHATZAK /

CRITERIOS ESPECÍFICOS DE BAREMACIÓN DE LOS CONCURSOS DE PROFESORADO

AYUDANTE DOCTOR

Irakasle laguntzaile doktoreak hautatzeko prozesuaren arautegiaren II. Eranskinean dago jasota (2024ko ekainaren 14ko EHAA).

 Está recogido en el Anexo II del Reglamento del proceso de selección del Profesorado Ayudante Doctor (BO.P.V. de 14 de junio de 2024).

1.– Lan esperientzia.

1.– Experiencia laboral.

		BATZORDEAK EMANDAKO PUNTUAZIOA / PUNTUACION COMISION
Unibertsitate irakaslea kontratuarekin / Docencia universitaria con relación contractual como profesor/a	≤4 puntu/urte / ≤4 puntos/año	
Doktorego ondoko ikertzaile kontratatua / Investigador/a contratado/a postdoctoral	≤3 puntu/urte / ≤3 puntos/año	
Esperientzia unibertsitateko irakaskuntza-ikerketa esparrutik kanpo / Experiencia fuera del ámbito docente e investigador universitario	≤3 puntu/urte / ≤3 puntos/año	
Doktorego aurreko ikertzaile kontratatua / Investigador/a contratado/a predoctoral	≤2 puntu/urte / ≤2 puntos/año	

Arduraldi partzialean eginiko zerbitzuak haztatu egingo dira, unibertsitate irakaskuntzarako unitatearen erreferentziazat harturik urteko 24 kredituak edo asteko 8 eskola orduak. Beste motatako kontratuak antzera haztatuko dira.

– Ez da beharrezkoa izango egiaztatzea UPV/EHUn emandako irakaskuntza

Los servicios prestados en régimen de dedicación a tiempo parcial se ponderarán, tomando como referencia de la unidad, para la docencia universitaria, los 24 créditos anuales o las 8 horas lectivas semanales. De forma similar se ponderarán contratos de otro tipo.

– No será necesario acreditar los servicios docentes prestados en la Universidad del

zerbitzuak, eta administrazioak berak erantsiko ditu ofizioz. Dena dela, lehiakideek aurkeztu ahal izango dute emandako irakasgaiak jasotzen dituen ziurtagiria.

– Irakaskuntza publikoan emandako zerbitzuak egiaztatuko dira zerbitzu orriaren eta emandako irakasgaien ziurtagiriaren bidez.

– Irakaskuntza pribatuan emandako zerbitzuak egiaztatzeko, aurkeztuko dira lan kontratua eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorren ziurtagiria (ikastegiaren –enpresaren– izena eta alta aldia jasoko dituen). Gainera, emandako irakasgaien ziurtagiria erantsi beharko da.

– Ikertzaile gisa emandako zerbitzuak baloratuko dira doktorego ondoko ikerketaren atalean, baldin eta izangaiak doktore titulua egiaztatzen badu kontratazio horretarako. Bestela, baloratuko dira doktorego aurreko ikerketaren atalean, kontuan izan gabe izangaiak titulu hori duen ala ez.

– MEC, Eusko Jaurlaritza eta UPV/EHUren deialdi ofizialetako doktorego aurreko eta ondoko bekak zenbatuko dira zientzia, teknologia eta

País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, que se adjuntarán por la propia administración de oficio. No obstante, lo anterior, las concursantes y los concursantes podrán presentar certificación comprensiva de las materias impartidas.

– Los servicios docentes prestados en la enseñanza pública se acreditarán mediante hoja de servicios y certificación comprensiva de las materias impartidas.

– Los servicios docentes prestados en la enseñanza privada se acreditarán mediante contrato de trabajo y certificación expedida por la Tesorería General de la Seguridad Social donde conste el nombre del centro (empresa) y el período de alta. Deberá adjuntarse también la certificación comprensiva de las materias impartidas.

– Los servicios prestados como personal investigador serán valorados en el apartado de investigador postdoctoral en el supuesto de que por parte de la candidata o candidato se acredite la exigencia del título de Doctor para dicha contratación. En caso contrario se valorarán en el apartado de investigación predoctoral, con independencia de que dicha candidata o candidato ostente dicho título.

– Las becas predoctorales y postdoctorales de convocatoria oficial del MEC, Gobierno Vasco y UPV/ EHU se computarán de la misma forma que los

berrikuntza sistemara sartzeko doktorego aurreko edo ondoko ikertzaileen kontratuen modu berean.

– Oro har, lan esperientzia honela egiaztatuko da:

- Besteren konturako lan esperientzia denean, lan kontratuaren kopiaren eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorraren ziurtagiriaren bidez. Enpresaren ziurtagiri bat ere aurkeztuko da, betetako lanpostuak eta zereginak jasoko dituen.
- Norbere konturako lan esperientzia denean, eginiko lanen zinpeko aitortpenaren eta dagokion Ogasun Sailaren ziurtagiriaren bidez, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan izandako altak jasota. Gainera, benetan eginiko lanak egiaztatzekeo agiriak aurkeztuko dira (BEZ aitortpenak, adibidez).
- Bekaldiak egiaztatzekeo, beka deialdia egin duen organoaren ziurtagiria aurkeztuko da, espresuki adierazita noiztik noiz arte izan den bekaldia eta denbora horretan etenaldirik egon den ala ez.

contratos de personal investigador predoctoral o postdoctoral, de acceso al sistema de ciencia, tecnología e innovación.

– La experiencia profesional se acreditará, con carácter general, de la siguiente forma:

- Cuando se trate de experiencia profesional por cuenta ajena mediante la copia del contrato de trabajo y certificación de la Tesorería General de la Seguridad Social. Se acompañará certificado de la empresa en el que se expliquen los puestos y labores realizadas.
- Cuando se trate de experiencia profesional por cuenta propia mediante declaración jurada de las actividades realizadas y la certificación de la Hacienda correspondiente con los períodos de alta en el Impuesto de Actividades Económicas. Además de lo anterior resultará necesario aportar documentación justificativa de los trabajos efectivamente realizados (declaraciones de IVA, por ejemplo).
- El período de disfrute de becas se acreditará mediante certificación del órgano que convocó la misma, certificación en la que expresamente se diga la fecha de inicio y fin de su disfrute y si durante su disfrute se ha realizado suspensión alguna.

– Denboran bat datozen lanaldiak/bekaldiak baloratuko dira 4 puntu/urte mugarekin.

– Los períodos de trabajo/becas que coincidan en el tiempo, se valorarán con el límite conjunto de 4 puntos/año.

2.– Ikerketako merezimenduak.

2.– Méritos de investigación.

				BATZORDEAK EMANDAKO PUNTUAZIOA / PUNTUACION COMISION
Ikerketa proiektuak / Proyectos de Investigación	Kanpo erreferentziarekin / Con referencia externa			
	Ikertzaile nagusia / Investigador principal	≤1,25 puntu/urte / ≤1,25 Puntos/año		
	Laguntzailea / Colaborador	≤0,75 puntu/urte / ≤0,75 Puntos/año		
	Kanpo erreferentziarik gabe / Sin referencia externa			
	Ikertzaile nagusia / Investigador principal	≤0,37 puntu/urte / ≤0,37 Puntos/año		
	Laguntzailea / Colaborador	≤0,25 puntu/urte / ≤0,25 Puntos/año		
Arte Ederren kasuan, Balioespen Batzordeak erabaki ahal izango du lehiakidearen obra plastikoaren ikerketa izaeraren inguruan, eta gehienez ere 5 punturekin ebaluatuko du, hari buruzko dossier bat kontuan hartuta. Era berean, ikus-entzunezko arloetan, gehienez ere 5 punturekin baloratu ahal izango dute Batzordeek ekoizpenen multzoa (book-ak eta antzekoak). / En el caso de Bellas Artes, la Comisión de Evaluación podrá determinar el carácter investigador de la obra plástica del o la concursante y, a la vista de un dossier ilustrativo, evaluarla con hasta 5 puntos. De manera análoga, en las áreas audiovisuales, las Comisiones podrán valorar el conjunto de las producciones (books y similares) con hasta 5 puntos.				
Argitalpenak, garrantziaren, inpaktuaren eta poltsarekiko egokitzapenaren arabera / Publicaciones según importancia, impacto y adecuación a la bolsa.	Liburua / Libro	≤5 puntu / ≤5 Puntos		
	Liburu kapitulua / Capítulo de libro	≤2,5 puntu / ≤2,5 Puntos		
	Artikulua / Artículo	≤3 puntu / ≤3 Puntos		
	Arte Ederren katalogoa (gehienez ere 5) / Catálogo BB. AA. (hasta un máximo de 5)	≤0,5 puntu / ≤0,5 Puntos		

Patenteak / Patentes		≤2 puntu / ≤2 Puntos	
Kongresuak / Congresos	Hitzaldia / Ponencia	≤1 puntu / ≤1 Punto	
	Romunikazioa / Comunicación	≤0,5 puntu / ≤0,5 Punto	
Tesi zuzendaritza / Dirección de Tesis		≤3 puntu / ≤3 Puntos	
IAD/MAL zuzendaritza / Dirección de DEAs/Trabajos Fin de Master		≤0,5 puntu / ≤0,5 Puntos	
Egonaldiak ikerguneetan (bi hilabetetik gorakoak) / Estancias en Centros de Investigación (superiores a dos meses)		≤0,5 puntu / ≤2 Puntos/año	
Beste ikerketa merezimendu batzuk / Otros méritos de investigación		≤1 puntu guztira / ≤1 Punto total	

3.- Irakaskuntzako eta gestio akademikoko merezimenduak.

3.- Méritos docentes y de gestión académica.

			BATZORDEAK EMANDAKO PUNTUAZIOA / PUNTUACION COMISION
Irakats materiala / Material Docente	Liburuak / Libros	≤2 puntu * / ≤2 Puntos *	
	Kapituluak / Capítulos	≤1 puntu * / ≤1 Puntos *	
	Argitaletxe entzutetsuetan edo irakaskuntza-ikaskuntzako baliabide birtualen zentroetan argitaratutako materiala, ebaluazioa dueña / Material docente publicado en editoriales de prestigio o en centro de recursos virtuales de enseñanza-	≤0,5 puntu * / ≤0,5 Puntos *	

	aprendizaje que cuente con evaluación		
Hezkuntza berrikuntzarako Proiektuak /	Arduraduna / Responsable	$\leq 0,5$ puntu * / $\leq 0,5$ Puntos *	
Proyectos de Innovación docente	Laguntzailea / Colaborador	$\leq 0,25$ puntu * / $\leq 0,25$ Puntos *	
Zientzia dibulgazioko argitalpenak / Publicaciones de divulgación científica		$\leq 0,25$ puntu * / $\leq 0,25$ Puntos *	
Aldizkariako argitalpenak edo irakaskuntzarekin loturikoak (berrik.-ren arabera) / Publicaciones en revista o relacionadas con la docencia (según revi)		$\leq 0,5$ puntu * / $\leq 0,5$ Puntos *	
Irakaskuntzari loturiko argitalpenak/komunikazioak kongresuan / Publicaciones / comunicación en congreso relacionadas con la docencia		$\leq 0,25$ puntu * / $\leq 0,25$ Puntos *	
Ebaluazio positiboa Docentiaz-en (ebaluazio bakarra) 4 puntu, kalifikazioa Bikain bada 3 puntu, baldin puntuazioa ≥ 9 2 puntu, baldin $7 \leq$ puntuazioa < 9 1 puntu, baldin $5 \leq$ puntuazioa < 7 / Evaluación positiva en Docentiaz (solamente una evaluación) 4 puntos, si la calificación es de excelente 3 puntos, si puntuación ≥ 9 2 puntos, si $7 \leq$ puntuacion < 9 1 puntu, si $5 \leq$ puntuacion < 7		≤ 4 puntu / ≤ 4 Puntos	
Irakaskuntzari buruzko inkesta positiboak / Encuestas positivas de la docencia		≤ 1 puntu/urte / ≤ 1 Punto/año	
Unibertsitate master ofizialetako irakaskuntza / Docencia en másteres universitarios oficiales		≤ 1 puntu/3 kr. / ≤ 1 Puntos/3 cr.	
Proiektuen/Karrera-gradu amaierako lanen zuzendaritza / Dirección de Proyectos/Trabajos fin de carrera/grado		$\leq 0,25$ puntu * / $\leq 0,25$ Puntos *	
Unibertsitate irakaskuntza beste hizkuntza batean (ofiziala edo jakintza espezialitateko espezifikoa ez dena) / Docencia universitaria impartida en otro idioma (que no sea oficial ni específico de su especialidad de conocimiento)		≤ 1 puntu/irakasgaia /urte / ≤ 1 Punto/ asignatura/año	
Berrikuntza eta irakaskuntza kalitateko ikastaroak ematea / Impartición de cursos de innovación y calidad docente		$\leq 0,5$ puntu/3 kr. * / $\leq 0,5$ Puntos/3 cr. *	

Prestakuntza egiaztatua berrikuntzan eta irakaskuntza kalitatean / Formación acreditada en innovación y calidad docente	≤0,25 puntu/3 kr. / ≤0,25 Puntos/3 cr.	
Unibertsitate eta ordezkaritza organoetako kide izatea / Pertenencia a órganos universitarios y de representación	≤1 puntu/urte / ≤1 Punto/año	

– UPV/EHUren master ofizialetako irakaskuntza egiaztatu egin beharko da dagokion irakaskuntza ziurtagiriaren bidez (GAUren).
– Izartxoak duten ataletan, euskaraz eginiko merezimenduak eta genero ikuspegiaz eginiko merezimenduak 1,5ez biderkatuko dira.

– La docencia en másteres oficiales de la UPV/EHU deberá acreditarse mediante el correspondiente certificado docente en GAUR.
– En los apartados indicados con un asterisco los méritos realizados en Euskara y los méritos con perspectiva de género se multiplicarán por 1,5.

4.– Merezimendu akademikoak.

4.– Méritos académicos.

		BATZORDEAK EMANDAKO PUNTUAZIOA / PUNTUACION COMISION	
Doktore titulua: / Título de Doctor:	Cum laude / Cum laude	12 puntu / 12 Puntos	
	Bikain / Sobresaliente	10 puntu / 10 Puntos	
	Beste kalifikazio batzuk / Otras calificaciones	8 puntu / 8 Puntos	
Nazioarteko tesiak / Tesis Internacional		2 puntu / 2 Puntos	
Doktorego tesia euskaraz (soilik erabili ez bada euskarari dagokion atalean C2 maila egiaztatzeko) / Tesis Doctoral en Euskara (solo si no se ha utilizado en el apartado correspondiente al euskera para acreditar el nivel C2)		2 puntu / 2 Puntos	
Gradua/Lizentziatura/Arkitektura/Ingeniaritza batez besteko nota / Nota media Grado/Licenciatura/Arquitectura/Ingeniería		x 1 puntu / x 1 Puntos	
Ezohiko saria: / Premio extraordinario:	Doktoregoa / Doctorado	≤2 puntu / ≤2 Puntos	
	Lizentziatura/Ark./Ing./Masterra / Licenciatura / Arqu. / Ingeniería / Máster	≤2 puntu / ≤2 Puntos	
Doktorego programa (32 kreditu) ¹ / Programa de Doctorado (32 créditos) ¹		≤2 puntu / ≤2 Puntos	

IAD (Ikasketa Aurreratuen Diploma) ¹ / DEA (Diploma de Estudios Avanzados) ¹	≤1 puntu / ≤1 Punto	
Master ofiziala ² / Master Oficial ²	≤3 puntu / ≤3 Puntos	
30 kreditu baino gehiagoko graduondoko beste master edo ikastaro ofizial batzuk / Otros Másteres o cursos oficiales de postgrado de más de 30 créditos	≤2 puntu / ≤2 Puntos	
Beste unibertsitate titulazio batzuk / Otras titulaciones universitarias	≤3 puntu / ≤3 Puntos	
Hizkuntzak (ingelesaren kasuan izan ezik, hizkuntzak baloratuko dira soil-soilik interesgarritzat jotzen direnean irakaskuntza lanerako) / Idiomas (excepto en el caso del inglés, los idiomas se valorarán únicamente en el caso de que se consideren de interés para la labor docente a desarrollar)	C2 ≤5 puntu / C2 ≤5 Puntos	
	C1 ≤4 puntu / C1 ≤4 Puntos	
	B2 ≤2 puntu / B2 ≤2 Puntos	
	B1 ≤1 puntu / B1 ≤1 Punto	
Beste merezimendu batzuk / Otros méritos	≤2 puntu guztira / ≤2 Puntos total	

1. oharra: Soilik doktorego titulurik ez badago.

2. oharra: Doktorego titulua izanez gero, soilik baloratuko dira doktoregora sartzeko eskatu ez diren masterrak.

Nota 1: Solamente si no se dispone del título de doctorado.

Nota 2: Si se dispone del título de doctorado, solamente se valorarán los másteres que no hayan sido requeridos en el acceso al doctorado.

Batez besteko nota: Espedientearen batez besteko nota agertzen den ziurtagiri akademikoetan, kontuan hartuko da nota hori, kasu guztietan.

Espedientearen batez besteko nota agertzen ez bada, irakasgaien kalifikazioen batez besteko puntuazioa lortuko da, kalifikazio horiek zenbakiz adierazita daudenean.

Nota literala bada, baliokidetasun

Nota media: En aquellas certificaciones académicas en las que figure la nota media del expediente se tomará esta, en cualquier caso.

Si no figura la nota media del expediente se obtendrá la puntuación media de las calificaciones de las asignaturas cuando estas vengan expresadas numéricamente.

Si la expresión es literal se obtendrá la

hauek erabiliko dira batez bestekoa lortzeko:

- Ohorezko matrikula: 10
- Bikain: 9
- Oso ongi: 7,5
- Nahikoa, gainditua, baliozkotua, gai: 5,5

Ez dira inola ere kontuan hartuko aukera askeko irakasgaiak batez besteko nota lortzeko.

Ziurtagiri akademiko pertsonala bidaltzen ez bada, ulertuko da izangaiak lortu duela gainditu ahal izateko batez besteko nota. Kontrakoa adierazten ez bada, puntuazioak unitate bakoitzeko dira.

media aplicando las siguientes equivalencias:

- Matrícula de Honor: 10.
- Sobresaliente: 9.
- Notable: 7,5.
- Suficiente, aprobado, convalidado, apto: 5,5.

En ningún caso se considerarán las asignaturas de libre elección para la obtener la nota media.

En el caso de que no se remita la certificación académica personal se considerará que la aspirante o el aspirante obtuvo la nota media de aprobado. A no ser que se indique lo contrario, las puntuaciones establecidas son por unidad.

5.– Euskara jakitea.

5.– Conocimiento de euskera.

5.1.– Euskararen ezagutza akademikoa, irakasteko eskatzen den mailara arte (gehieneko maila bakarrik puntuatuko da, 8,80 puntu gehienez).

5.1.– Conocimiento académico del euskera hasta el nivel requerido para la impartición de docencia (únicamente se puntuará el nivel superior, hasta un máximo de 8,80 puntos).

Maila / Nivel	Puntuak / Puntos
C1	8,80
B2	5,30
B1	3,50
A2	1,50
A1	0,75

Oharrak:

- Ezagutza maila frogatuko da deialdiaren egunean Euskal Autonomia Erkidegoan

Notas:

- El nivel de conocimiento se justificará de acuerdo a la normativa en vigor en la Comunidad Autónoma

indarrean dagoen araudiaren arabera.

- C1 mailaren baliokidetzat hartuko da UPV/EHUK antolaturiko EIGA (Euskaraz Irakasteko Gaitasun Agiria) azterketa gainditu izana egiaztatzen duen agiria.

5.2.- Euskararen ezagutzarekin edo ikastaro espezifikoekin loturiko merezimenduak (2,20 puntu gehienez) (C1 mailatik aurrera).

Vasca a la fecha de la convocatoria.

- Se considerará equivalente al nivel C1 el documento acreditativo de haber superado el examen EIGA (Euskaraz Irakasteko Gaitasun Agiria) organizado por la UPV/EHU.

5.2.- Méritos relacionados con el conocimiento de euskera o cursos específicos (hasta 2,20 puntos) (a partir del nivel C1).

Merezimendua / Mérito	Puntuak / Puntos
C2 egiaztapena	2,20 puntu / 2,20 puntos
ADITU	1,65 puntu / 1,65 puntos
AITZINATU	1,80 puntu / 1,80 puntos
Hobekuntza ikastaroak	0,25 puntu/ikastaro / 0,25 puntos/curso
TSE-1	0,20 puntu / 0,20 puntos
TSE-2	1,0 puntu / 1,0 punto
TSE-3	1,0 puntu / 1,0 punto
ZUZEN+	1,20 puntu / 1,20 puntos

Oharrak:

- C2 ezagutza maila frogatuko da deialdiaren egunean Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dagoen araudiaren arabera.
- Prestakuntza espezifikoari dagokionez, soilik hartuko dira kontuan UPV/EHUren Euskara Zerbitzuak antolaturiko ikastaroak eta prestakuntza programak.

6.- Irakaskuntza programa eta ikerketa proiektua (24 puntu).

Balioespen Batzordeak baloratuko ditu aurkezturiko Irakaskuntza Programaren eta Ikerketa Proiektuaren interesa, kalitatea eta berrikuntza maila, eta, horrez gainera, lehiakideak

Notas:

- El nivel C2 se justificará de acuerdo a la normativa en vigor en la Comunidad Autónoma Vasca a la fecha de la convocatoria.
- En lo que respecta a la formación específica, solamente se considerarán los cursos y programas formativos organizados por el Servicio de Euskara de la UPV/EHU.

6.- Programa Docente y Proyecto de Investigación (24 puntos).

La Comisión Evaluadora valorará el interés, la calidad y el grado de innovación del Programa Docente y del Proyecto de Investigación presentados, así como la claridad expositiva de la concursante o

azalpen argiak emateko duen
gaitasuna, plazaren irakats
hizkuntzetan duen jarioa eta genero
ikuspegia kontuan hartzen duen ala ez.

del concursante, la fluidez en las lenguas
de impartición incluidas en el perfil de la
plaza y la inclusión de la perspectiva de
género.

Presidente/a Mahaibura

Secretario/a /Idazkaria

Izpta./Fdo.:

Izpta./Fdo.: